



Mugikortasunaren diagnostikoa. Laburpena





“Azpeitiko Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana (HMJP) Udalak abian jarritako politikak planifikatzeko tresna da. Horren helburua da integrazio, partaidetza eta ebaluazio printzipioekin bat datozen etorkizuneko estrategiak zehaztea, desplazamenduak egiteko modu jasangarriagoak sustatzea (oinez, bizikletaz eta garraio publikoan), gizarte-kohesioa eta ingurumenaren babesa, udalerrian bizi, lan egin edo bere ekintzak garatzen dituen edozeinentzat bizi kalitate hobeago bat bermatuz”



How most traffic engineers see your city



How cities should be designed





EUROPEAR ESPARRUA

Europa 2020 Estrategia

- ✓ **BEG-ak 20%ean murriztu.**
- ✓ **Energiaren %20 berriztagarria izan behar da.**
- ✓ **Energia eraginkortasuna %20 handitzea.**

EUSKAL ESPARRUA

- ✓ **EAEko Energia Jasangarritasunaren Legea 4/2019**
- ✓ **Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailea. Euskadi 2020.**
- ✓ **2030eko Euskadiko Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea.**
- ✓ **Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legea (2021)**
- ✓ **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Gidalerroak (2019).**
- ✓ **Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala (2013).**
- ✓ **Urola-Kostako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Plan Partziala (2006).**
- ✓ **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea**

UDAL ESPARRUA

- ✓ **Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (2013).**
- ✓ **Azpeitiko Mugikortasun Plana (2005).**
- ✓ **Azpeitiko Mugikortasun Jasangarrirako Estrategia (2004).**
- ✓ **Azpeitiko Irisgarritasun Plana (2021)**
- ✓ **Azpeitiko Bizikleta Aparkalekuak (2018).**
- ✓ **Azpeitia udalerriko Zarata Mapa (2014)**
- ✓ **Azpeitia Agenda 2030.**
- ✓ **Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko udal ordenantza (2000).**





Faseak

1. Aldez aurreko bilerak. Informazioa biltzea eta landa-lana.

2. Egungo egoeraren diagnosi parte-hartzailea. Hasierako dokumentu estrategikoa.

3. Helburuak ezartzea eta alternatibak aztertzea. Ekintza proposamenak.

4. Jarraipen adierazleen kalkulua. Ekintza programa

5. Tramiteak eta aldaketak

Planaren Dokumentuak

1. Analisi eta diagnostikoaren memoria

Hasierako Dokumentu Estrategikoa

Mugikortasunaren diagnostikoan partaidetza. Mugikortasun galdetegiak

2. Ekintza plana

Proposamen Dokumentua

Ekintza Planaren Hiri partaidetza

Behin-behineko HMJP

Laburpen dokumentua

Behin-betiko HMJP

MUGIKORTASUN GALDETEGIAK


- 73 galdetegi erantzun dira udalaren web orriaren bidez

MUGIKORTASUNAREKIN LOTUTAKO ERAGILEEKIN BILERA

- Aurrez aurreko bilera 9 udal entitatetako 14 lagunekin: Urola Bizirik; Baigera; Emakumeen Txokoa; Ezindu fisikoen elkarte; Txolarte; Atzegi; Marea Urdina; Karmelo Etxegarai ikastola; Ikasberri ikastola.
- Kolektiboen kezka nagusiak:
 - Oinezko joan-etorrietan oztopoak ugariak dira: terrazak espaloietan eta bizikletak espaloietan.
 - Azken urteotan, oinezkoentzako eremu asko oraindik ez da halakotzat hartu (Alde Zaharra autoak eta bizikletekin).
 - Alde Zaharreko zoladura oztopo bat da mugikortasun murriztua duten pertsonentzat (MMP)
 - Udalerrian ibilgailu pribatua gehiegi erabiltzen da desplazamendu laburrak egiteko
 - Konektatutako bidegorri sare bat falta da, erosotasunez eta segurtasunez ibili ahal izateko
 - Auzoekin konexio hobe bat falta da (hiri-autobusaren zerbitzua?)
 - Ibilgailu motordunen diziplina falta handia udalerrian (aparkalekua, gehiegizko abiadura, etab.)



2. FASEA: Analisia - Diagnostikoa



- MUGIKORTASUN ESKAINTZA
- ESKARIAREN ANALISIA
 - Lurraldea
 - Udalerria
 - Desplazamenduak
 - Oinezkoak
 - Bizikletak
 - Garraio Publikoa
 - Ibilgailu Pribatua
 - Aparkalekua
 - Garraioaren kanpo-eragileak



Lurraldea

Udalerria

Desplazamenduak

Oinezkoak

Bizikletak

Garraio Publikoa

Ibilgailu Pribatua

Aparkalekua

Garraioaren kanpo-eragileak





Udalerria gaur

Biztanle
dentsitate altua
erdiguneko
zonaldeetan

Motorizazio
altua

Biztanleria:

- 15.220 biztanle (2020) 4 biztanleri entitatetan banatuak: Azpeitia, Loiola, Urrestilla eta Nuarbe. Azpeitin biltzen da biztanleriaren %93a.
- **Urteko batez besteko hazkundera %0,3koa izan da azken 20 urteetan. Hazkundera jarraitua izan da baina motela.**
- Biztanle dentsitatea: 220 biz./km² (Azkoitia 217 biz./km², Orio 632 biz./km², Zarautz 1.642 biz./km², Urola-Kosta eskualdea 237 biz./km²).
- Dentsitate hau 07 eta 08 sekzioetako dentsitate baxuak eragiten du (30 biz./km² inguru bakoitzean), hiriguneko sekzioetan 3.018 (04 sekzioan) eta 20.844 (06 sekzioan) biz./km² dauden bitartean
- Biztanleria-piramide nahiko orekatua, gehiengoa 40-54 urte bitartekoak osatzen dute, bai emakume eta bai gizonetan. 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek ere ordezkartza handia dute

Motorizazioa:

- Ibilgailu parkea: 10.615 ibilgailu (hauetatik 8.434 autoak dira).
- **Motorizazio indizea (697 ibilgailu/1.000 bizt.) %2,2-a hazi da azken lau urteetan (2017-2020). Hazkundera biztanleriarena baina baxuagoa izan da (%2,7).**
- Motorizazio indize altuena 07 sekzioan (1.081 ibilgailu/1.000 bizt.).
- Kotheen indizea: 554 kotxe/1.000 biz. (Zestoa 557, Zumaia 511, Azkotia 508 eta Zarautz 461).

Egitura Ekonomikoa:

- Nahiz eta azken urteetan pisua galdu, industriaren garrantzia nabarmena da udalerrian **(industriak eragindako lanpostuak totalaren %32a dira Azpeitian)**. Urola-Kostan industriak eragindako lanpostuak %28,2a dira, Gipuzkoan %22a eta EAEn %18,7a.
- Udalerrian zerbitzuen sektoreko dauden lanpostu asko industriarekin zerikusia dute (aholkularitza, zerbitzu juridikoak eta ekonomikoak, jarraipen teknikoa, etab.).
- **Auto-euspen indizea %45,9koa da.** Udalerrian lan egin eta bizi den biztanleria okupatuaren eta udalerriko biztanleria okupatu osoaren arteko erlazioa. 2001ean %69,3koa zen, eta honen arabera gaur egun Azpeitiko biztanleriak behar handiagoa dauka kanpora joateko lan arrazoiengatik 2001ean baino.

BIDAIAK ERAKARRI ETA SORTZEN DITUZTEN ZENTROAK



Azkoitia

Mugikortasuna erakartzen duten zentroak	Bidegorri sarea
• Zentro Ofizialak	— Sare lokala
• Hezkuntza	— Gipuzkoako sarea
• Kultura	🚲 Bizikleta Aparkalekua
• Kirolak	🚌 Aparkaleku estaldura 50m
• Osasuna	Autobus zerbitzua
• Erlijioa	🚏 Hiriarteko autobus geltokia
• Industrialdea	🟡 Geltoki estaldura 500 m

- Erakarren-zentro gehienek hiriarteko autobusaren estaldura dute (500 metroko erradioa).
- Bizikleta-aparkalekuen estaldura (50 metroko erradioa) nabarmenagoa erdigunean eta eskola inguruetan.
- **Hala ere, bidegorriaren bidezko lotura eta sarbidea erakarren zentro hauetara defizitariora da kasu gehienetan.**



Lurraldea

Udalerria

Desplazamenduak

Oinezkoak

Bizikletak

Garraio Publikoa

Ibilgailu Pribatua

Aparkalekua



Garraioaren kanpo-eragileak



DESPLAZAMENDUAK; ESKAERA OROKORRA



- Udalerrian jatorria edo helmuga duten 57.797 desplazamendu egiten dira egunero.
- **44%a barne desplazamenduak dira eta 56%a konexioko joan-etorriak dira.** %56 honetatik %50a eragindakoak dira eta %50a erakarritakoak.
- Desplazamenduen batez besteko iraupena 26 minutukoa da (19 minutu modu ez motordunetan; 43 minutu autobusean eta 28 minutu ibilgailu pribatuan).
- **Barne desplazamendu gehienak oinez edo bizikletaz egiten dira (63%).**





2005 – 2021 ALDERAKETA ETA BILAKAERA

BANAKETA MODALA (Desplazamenduak milakoetan)

2004 Eszenatokia

	Autoa	GP	Oinez/Bizi	Guztira
Barnekoa	7.9	0.2	7.5	15.6
Eraginda	4.2	1.9	0.1	6.2
Erakarrita	5.0	2.3	0.1	7.4
Guztira	17.1	4.4	7.7	29.2
%	59%	15%	26%	

2012 Zero Eszenatokia

	Autoa	GP	Oinez/Bizi	Guztira
Barnekoa	10.0	0.3	9.5	19.8
Eraginda	5.3	2.4	0.1	7.8
Erakarrita	6.4	2.9	0.1	9.4
Guztira	21.7	5.6	9.7	37.0
%	59%	15%	26%	

2012 Mugikortasun Jasangarriko Eszenatokia

	Autoa	GP	Oinez/Bizi	Guztira
Barnekoa	8.4	0.4	11.0	19.8
Eraginda	5.1	2.6	0.1	7.8
Erakarrita	6.1	3.1	0.2	9.4
Guztira	19.6	6.1	11.3	37.0
%	53%	16%	31%	


2021 Egungo Eszenatokia

	Autoa	GP	Oinez/Bizi	Guztira
Barnekoa	9.0	0.4	16.2	25.6
Eraginda	10.3	2.4	3.3	16.0
Erakarrita	10.3	2.4	3.5	16.2
Guztira	29.6	5.2	23.0	57.8
%	51%	9%	40%	

DESPLAZAMENDUAK; LANEKO JOAN-ETORRIAK




- Desplazamendu gehienak (**%64**) **derrigorrezko mugikortasunekoak** dira, hau da, ikasketa edo lanagatik egiten dira. Ikasketak pisu handia barne desplazamenduetan.
- Lan arrazoiengatik egindako desplazamenduak garrantzia nabarmenagoa aurkezten dute konexioko desplazamenduetan, bai eragindako desplazamenduetan (%63), bai erakarritako desplazamenduetan (%63,7). Barne desplazamenduetan %35a dira laneko desplazamenduak.



	Barnekoak	Eragindakoak	Erakarritakoak
Lana	%35,0	%63,0	%63,7
Aisia	%20,9	%21,3	%22,2
Gestioak	%13,7	%9,8	%8,2
Ikasketak	%22,6	%4,7	%4,7
Erosketak	%7,8	%1,2	%1,2

Iturria: Eusko Jaurlaritza Mugikortasun Inkesta 2016

- Lanera joateko egiten diren desplazamendu gehienak ibilgailu pribatuan egiten dira (**%79,3**). **Ibilgailu pribatuaren erabilpen maila oso altua da lanerako barne desplazamenduetan (%78,5).**





	Barnekoak	Eragindakoak	Erakarritakoak
Oinez	%11,9	%7,6	%9,8
Bizikleta	%9,6	-	-
Autoa	%72,8	%79,2	%79,6
Garraio kolektiboa errepidea	-	%10,7	%10,6
Motorra	%5,7	%2,5	-

DESPLAZAMENDUAK; SEXUAREN ARABERAKO MUGIKORTASUNA



- Emakumeek desplazamendu gutxiago egiten dituzte lan arrazoiengatik, nahiz eta orokorrean desplazamendu gehiago egiten dituzten Azpeitian.
- Azpeitian **oinez eta garraio publikoan** egindako **desplazamenduen kuota handiagoa da emakumeen artean**. Ibilgailu pribatua gizonak baino gutxiago erabiltzen dute.
- Etxeko lanak egiteko desplazamendu gehienak emakumeek egiten dituzte, bai jatorrian bai helmugan.



Gizonen desplazamenduak	Emakumeen desplazamenduak
Bidaia gutxi	Bidaia laburrak, ohikoak eta kateatuak
Bidaia zuzenak	Zerbitzu ezberdinak erabiliz
Definitutako orduetan	Ordu ezberdinetan
Bakarrik	Umeekin edo pertsona zaharrekin



Lurraldea

Udalerrria

Desplazamenduak

Oinezkoak

Bizikletak

Garraio Publikoa


Ibilgailu Pribatua

Aparkalekua

Garraioaren kanpo-eragileak



MUGIKORTASUNA OINEZ; OINEZKOEN OINARRIZKO SAREA



- Ibilbide ezberdinak udalerriko erakarpin zentroak konektatzea ahalbidetzen dute.
- Hiriguneko oinezko zonaldeak alde batera utzita, hiriarteko bidegorriak asko erabiltzen dira.
- Oinezkoentzako bideratutako zonak eta espazio bereziak joan dira gehitzen azken urteetan.

MUGIKORTASUNA OINEZ; OINEZKOEN SAREKO DISFUNTZIOAK



Azkoitia

1	Mugitzeko arazoak MMPrentzat, zoladura-mota dela eta.
2	Iragazkortasun falta oinezkoak pasatzeko.
3	Iragazkortasun falta oinezkoak pasatzeko.
4	Oinezkoen, bizikleten eta patineteen arteko koexistentzia falta da.
5	Kotxe, oinezko, bizikleta eta patineteen arteko koexistentzia falta da.
6	Kotxe, oinezko, bizikleta eta patineteen arteko koexistentzia falta da.
7	Mugitzeko arazoak MMPrentzat, zoladura-mota dela eta.
8	Espaloirik eza eta ibilgailuen abiadura handia.
9	Espaloia falta da autobus geltokiraino.
10	Tunelan argiztapena falta da.
11	Zirkulatzen, aparkatzen edo bigarren ilaran gelditzen diren ibilgailuen pilaketa.
12	Zirkulatzen, aparkatzen edo bigarren ilaran gelditzen diren ibilgailuen pilaketa.
13	Oinezkoen ibilbide arriskutsua, aparkatzeko maniobrak direla eta.
14	Oinezkoen ibilbide arriskutsua, aparkatzeko maniobrak direla eta.
15	Espaloia falta da.
16	Oinezkoen ibilbide arriskutsua, aparkatzeko maniobrak direla eta.
17	Landeta auzoa. Arriskuaren sententzia edo deserosotasuna sortu dezakeen gunea.
18	Sanjuandegi auzo atzeko bidegorria. Arriskuaren sententzia edo deserosotasuna sortu dezakeen gunea.
19	Iraurgi ikastetxe bideko "Karakola" Arriskuaren sententzia edo deserosotasuna sortu dezakeen gunea.
20	Frontoi txiki eta hilerri arteko kaleak. Arriskuaren sententzia edo deserosotasuna sortu dezakeen gunea.

- Iragazkortasunik gabeko biribilguneak (Loiolako Inazio / Garmendipe / Jose Artetxe) udalerrria banatzen duten elementu arkitektonikoak dira, eta oztopo dira desplazamendu eroso, kalitatezkoak eta seguruak egiteko.
- Oinezkoen ibilbideetan ohikoa da terrazekin eta gaizki aparkatutako kotxeekin topatzea.
- Espaloi falta ibilbide batzuetan (Urrestilla, Landeta, Buztinzuriko errebala)
- Alde Zaharreko zoladura ez da egokia Mugikortasun Murritzua duten pertsonentzat (batez ere gurgildun aulkiak).
- Arazoak bizikleta edo patineteekin elkarbizitzeko puntu batzuetan (Alde Zaharra, lurpeko pasabideak).



MUGIKORTASUNA OINEZ; ALDE ZAHARRA



- Oinezkoentzako den espazio batean, sarritan desplazamenduak egiteko kalitate eta segurtasun murriztuta daude, zamalanetako furgonetak eta kotxe partikularrak daudelako edonon.
- Bertan sartu / irteten diren kotxeak kontrolatzeko metodologiak ez du funtzionatzen. Edonor sartzen da edozein ordutan eta kotxea gaizki aparkatuta uzten du.
- Done Jakue kaleko aparkalekuak eragiten du kotxe asko aparkaleku bila sartzea.
- Bizikleta eta patineteekin gatazkak sortzen dira. Araudi garbirik ez dago.




MUGIKORTASUNA OINEZ; OINEZKOEN INTENTSITATEA



- **Udalerrian egunero egiten dira 21.600 desplazamendu oinez.** Horietako gehienak barne desplazamenduak dira (%68). Konexioko desplazamendu kopurua nabarmena da (%32), jende asko bidegorriak erabiliz beste herrietara (Azkoitia, Zestoa) kirola edo paseatzeko joan-etorriak egiten dituelako.
- Oinezko desplazamenduetan puntako orduak 12:00ak eta 17:00ak dira.

- Oinezkoen desplazamenduen ardatz nagusiak:
 - Alde Zaharra
 - Jose Artetxe / Foru Ibilbidea
 - Loiolako Ignazio Etorbidea
 - Sanjuandegi - Urbitarte





Lurraldea

Udalerria

Desplazamenduak

Oinezkoak

Bizikletak

Garraio Publikoa

Ibilgailu Pribatua

Aparkalekua

Garraioaren kanpo-eragileak



MUGIKORTASUNA BIZIKLETAN; BIDEGORRI SAREA



Bizikleta Aparkalekua

Sare lokala


- Noranzko biko bizikleta espalo
- Zirkulazio motorizatuarekin pa
- Bizikleta pista
- Bizikleta erreia
- Bizikleta bide bereizia

Gipuzkoako sarea

- Bizikleta bide bereizia
- Bizikleta erreia

Mugikortasuna erakartzen duten zentroak

- Zentro Ofizialak
- Hezkuntza
- Kultura
- Kirolak
- Osasuna
- Erligioa
- Industrialdea



Bidegorria	Luzera (metroak)	%
Hiri barnean egindako zatia (Udala)		
Noranzko biko bizikleta espaloia	2.946,7	%19,9
Bizikleta bide bereizia	504,1	%3,4
Zirkulazio motorizatuarekin partekatutako bidea	348,8	%2,4
Bizikleta erreia	311,2	%2,1
Bizikleta pista	58,5	%0,4
Hiriarteko egindako zatia (GFA)		
Bizikleta bide bereizia	8.112,9	%54,8
Bizikleta erreia	2.511,4	%17
Guztira	14.793,6	%100


- 2005ean ez zegoen bidegorririk eta gaur egun ia 15 km. Hauetatik %28a sare lokaleko km-ak dira eta %72a Gipuzkoako Foru Aldundiko sarearen km-ak.
- Azken hamarkadan, 3,09 km-tik 10,46 km-ra pasatu da sarea 10.000 biztanleko (EAEko batez besteko datua 152,18 km/10.000 bizt).
- **Desplazamenduak eragiten dituzten zentro askotara ezin dira erabiltzaileak bizikletaz iritsi.**
- 27 aparkaleku daude. Denak kalean eta babesik gabe

MUGIKORTASUNA BIZIKLETAN; BIZIKLETA SAREKO DISFUNTZIOAK



1	Bizikletak noranzko bietan eta ibilgailuak noranzko bakarrean ibiltzen dira, aparkatzeko eremuarekin.
2	Aparkatutako ibilgailuak, ateak irekitzean bizikleten desplazamendua oztopatzen dutenak.
3	Lurpeko pasabidea: Oinezkoen, bizikleten eta patineteen arteko koexistentzia falta da.
4	Konexioa falta da.
5	Desplazamendua galarazten duten ibilgailuak eta terrazen pilaketa.
6	Konexioa falta da.
7	Iragazkortasun arazoa.
8	Iragazkortasun arazoa.
9	Konexioa falta da.
10	Konexioa falta da.
11	Oinezkoen, bizikleten eta patineteen arteko koexistentzia falta da.
12	Konexioa falta da.
13	Konexioa falta da.
14	Argiztapena falta da.
15	Argiztapena falta da.

- **Sarearen iragazkortasun eta konexio falta dira arazo nagusiak.** Ez dago finkatutako sare bat. Industrialdeetara iristeko gabezia dago.
- Oinezko eta patineteekin elkarbizitzeko arazoak daude puntu batzuetan (Alde zaharra, lurpeko pasabideak,...) Ez dago araudi garbirik.
- San Martin Estrata (bi noranzko bizikletak eta bakarra autoak) eta Foru Ibilbidea (aparkatutako kotxeak ate irekitzerakoan) puntu gatazkatsuak.
- Ez dago babestutako aparkalekurik.
- GFA-ko inkesten arabera oso ondo baloratzen da Azkoitia-Azpeitia bidegorria.




MUGIKORTASUNA BIZIKLETAN; BIZIKLETA SAREKO DISFUNTZIOAK



- Bizikleta-bide tipologia ugari dago udalerrian eta uniformetasun falta honek erabiltzaileak despistatzen ditu.
- Diseinu aldetik bizikleta bide batzuetan irtenbideak ez dira egokienak, txirrindulariak behartzen dituelako traiektorian aldaketak egitera, eta ohikoena bizikletan desplazatzekoan zuzen joatea da.
- Kasu batzuetan oinezkoek inbaditzen dituzte bidegorriak.



MUGIKORTASUNA BIZIKLETAN; BIZIKLETA INTENTSITATEA



- Udalerrian egunero 1.500 desplazamendu inguru egiten dira bizikletaz.
- Gehienak, paseatzeko edo kirola egiteko desplazamenduak dira.
- Bizikleten desplazamenduen ibilbide nagusiak ikastetxeetara sartzeko bideak, kirol eremuetara joateko bideak eta GFA-ko ibilbideak dira.
- Egindako inkesten arabera bizikleta erabiltzaileen %75ak ibilbidea galtzadatik egiten dute, %23ak bidegorritik eta %2ak espaloitik.
- Azkoitia-Azpeitia bidegorria bizikletarekin erabiltzen dutenen artean %78k aisialdirako eta paseatzeko erabiltzen dute bidea, %19k lanera joateko eta %3k gestioak egiteko.



Lurraldea

Udalerria

Desplazamenduak

Oinezkoak

Bizikletak

Garraio Publikoa

Ibilgailu Pribatua

Aparkalekua

Garraioaren kanpo-eragileak





- Udalerritik 6 hiriarteko autobus linea igarotzen dira. Hauetatik lauk (UK01, UK03; UK05; UK06) gaueko zerbitzua eskaintzen dute.
- Udalerrri ugarirekin konexioak daude: Azkoitia, Zestoa, Errezil, Aizarnazabal, Donostia, Tolosa, Zarautz, Elgoibar, Eibar, Ermua eta Zumarraga, beste batzuren artean. Azkoitia, Donostia eta Zestoarekin konexio nagusiak.

Linea	Jatorria Azpe.	Helmuga Azpe.
UK01 – AZKOITIA > AZPEITIA > ZESTOA > DONOSTIA	42,6%	44,8%
UK02 – AZKOITIA > AZPEITIA > ERREZIL > BIDANIA – GOIATZ > ALBIZTUR > TOLOSA	1,7%	1,7%
UK03 – AZKOITIA > AZPEITIA > ZESTOA > AIZARNAZABAL > ZARAUTZ	15,1%	13,9%
UK04 – ALBIZTUR > BEIZAMA > AZPEITIA	5,3%	5,4%
UK05 – ZESTOA > AZPEITIA > AZKOITIA > ELGOIBAR > EIBAR > ERMUA	9,9%	9,8%
UK06 – ZUMAIA > ZESTOA > AZPEITIA > AZKOITIA > URRETXU > ZUMARRAGA	23,5%	22,8%
UK41G – AZKOITIA > AZPEITIA > ZESTOA > DONOSTIA	0,3%	0,1%
UK43G – AZKOITIA > AZPEITIA > ZESTOA > AIZARNAZABAL > ZARAUTZ	0,0%	0,0%
UK45G – ZESTOA > AZPEITIA > AZKOITIA > ELGOIBAR > EIBAR	0,7%	0,5%
UK46G – ZUMAIA > ZESTOA > AZPEITIA > AZKOITIA	1,0%	1,0%


- 29 autobus geraleku udalerrian. Horietatik **16 geltokietan (%55) markesinak jarrita daude** eta autobusa gelditzeko espazio propioa dago. Markesina duten geltoki guztiak erdigunean kokatzen dira.




- Hiriarteko autobus zerbitzuaren geltokietarako 500 metroko estaldura erradioa kalkulatu da. **Gune industrialak dira estalduratik kanpo geratzen direnak.**
- Biztanleriaren %80a estaldura honen barruan egongo litzateke. Zerbitzu zuzena ematen duela kontsideratu daiteke.



- Hiriarteko autobusaren erabiltzaile-kopuruak etengabe egin du gora; 2020an eten egin da pandemiaren ondorioz



- Harreman nagusiak bidaiari kopuruaren ikuspuntutik Azkoitia eta Donostiarekin





- Auzo-taxi zerbitzua martxan momentu honetan Azpeitiko erdigunea eta auzoak eta baserriak konektatzeko.
- Txartela ateratzeko honako auzoren batean erroldatuta egon beharko da: Aratz Erreka, Eizagirre, Elosiaga, Izarraitz, Loiola (barreiatua), Nuarbe, Matxinbenta, Odria, Oñatz, Oñazbidea edo Urrestillan
- 100 pertsona ezberdin baino gehiago izena emanda daude eta 7 taxik eskaintzen dute zerbitzua, baina momentuz zerbitzua erabiltzaile gutxi eskatzen dute (10 erabiltzaile)
- Historikoki udalerrian autoa eta parkinga elkarbanatzeko edo poligonoetara joateko autobus zerbitzua egon dira, baina arrazoi ezberdinengatik (erabilpen maila eskasa hauen artean) kendu ziren.



Lurraldea

Udalerria

Desplazamenduak

Oinezkoak

Bizikletak

Garraio Publikoa


Ibilgailu Pribatua

Aparkalekua

Garraioaren kanpo-eragileak



MUGIKORTASUNA IBILGAILU PRIBATUAN; HIERARKIZAZIOA



MUGIKORTASUNA GARRAIO PRIBATUAN; EBI




- **Egunero 28.000 ibilgailu inguru ibiltzen dira Azpeitiko kaleetan.** Horietatik 23.000 inguru udalerrira sartu eta ateratzen dira konexio bideak edo sarbideen sarea erabiliz.
- Batez beste, zirkulazioan dauden **ibilgailu astunak %9,4a** dira bide-sarean, baino %13ra igotzen da puntu batzuetan.
- Goizeko tartean (9-13) ibilgailu astunen %35,4a kontzentratzen da.





MUGIKORTASUNA GARRAIO PRIBATUAN



- Udalerriko bide sarearen barruan, Loiolako Ignazio – Jose Artetxe – Foru Ibilbidea ardatza da intentsitate handiena aurkezten duena, udalerriko sarrera eta irteera gehienak bideratzen baititu, eta baita barne mugimenduen distribuzioa ere.
- Ibilgailu pribatuan udalerritik zirkulatzen duen **trafikoaren %27a igarotze trafikoa** da, gehienbat Azkoitia eta Zestoa artean.



MUGIKORTASUNA GARRAIO PRIBATUAN; ZERBITZU MAILA



Ez da zirkulazioko gorabehera aipagarriarik nabari udalerrian, punta-puntako orduetan soilik atxikipen-maila txikiak (C maila) puntu batzuetan: Loiolako Ignazio etorbidean gehienbat, eskolara sartzeko orduan eta lanera desplazatzeko orduarekin bat eginez.





Lurraldea

Udalerria

Desplazamenduak

Oinezkoak

Bizikletak

Garraio Publikoa

Ibilgailu Pribatua

Aparkalekua

Garraioaren kanpo-eragileak



APARKALEKUA; ESKAINTZA



- Aztertutako eremuetan **8.300 aparkaleku-plaza** daude; **horietatik %62a galtzadako** plazak dira.
- Galtzadan dauden aparkalekuetatik bakarrik **%2,7a** araututako aparkalekuak dira edo TAO gunean daude.
- Galtzadaz kanpoko** aparkamenduan, **%95,1a parking pribatuetara** dagokio eta **%4,9a** udal parkingeko plazetara.


■ Aparkalekua
galtzadan librea

■ Aparkalekua
galtzadan erreserbak

■ Aparkalekua
galtzadan TAO

■ Galtzadatik kanpo
aparkaleku publikoa

■ Galtzadatik kanpo
aparkaleku pribatua




ZONA	Librea	GALTZADAN						GALTZADATIK KANPO				
		Araututa					GALTZADAN GUZTIRA	Parking publikoa		Aparka. pribatua	GALTZADA KANPO TOTALA	GUZTIRA
		MMP	Zamal.	TAO	Elektrik.	Araututa Guztira		Plaza pribatuak	Plaza publikoak			
Sekzioa 01	232	6	10	-	-	16	248	131	110	324	565	813
Sekzioa 02	311	7	6	-	-	13	324	-	-	223	223	547
Sekzioa 03	373	6	5	-	-	11	384	86	43	287	416	800
Sekzioa 04	1.544	17	17	13	2	49	1.593	-	-	393	393	1.986
Sekzioa 05	1.026	21	4	-	-	25	1.051	-	-	943	943	1.994
Sekzioa 06	590	13	-	-	2	15	605	-	-	271	271	876
Sekzioa 07	288	2	-	-	-	2	290	-	-	0	0	290
Sekzioa 08	145	2	-	-	-	2	147	-	-	30	30	177
Sekzioa 09	530	6	-	-	-	6	536	-	-	281	281	817
GUZTIRA	5.039	80	42	13	4	139	5.178	217	153	2.752	3.122	8.300

APARKALEKUA; BALANTZEA



- Oro har, udalerrriak **aparkatzeko plazen defizita aurkezten du (-95 plaza)**, baina 07 eta 08 sekzioak kontuan izan gabe 1.094ko superabita aurkezten du.
- Aztertutako eremu askotan plaza defizitak daude erroldatutako autoekiko, baina ondoan edo gertu dauden sekzioen superabitarekin orekatzen da banaketa normalean.



Zonaldea	Autoen aparkaleku eskaintza	Balantzea			
		IBILGAILUEN ESKARIA	IBILGAILU BALANTZEA	AUTOEN ESKARIA	AUTO BALANTZEA
Sekzioa 01	813	928	-115	737	76
Sekzioa 02	547	823	-276	653	-106
Sekzioa 03	800	1.029	-229	817	-17
Sekzioa 04	1.986	1.639	347	1.301	685
Sekzioa 05	1.994	1.566	428	1.243	751
Sekzioa 06	876	1.287	-411	1.022	-146
Sekzioa 07	290	1.455	-1.165	1.155	-865
Sekzioa 08	177	631	-454	501	-324
Sekzioa 09	817	1.216	-399	966	-149
GUZTIRA	8.300	10.574	-2.274	8.395	-95



- **2005etik 2021era aparkaleku kopurua %55ean hazi da, autoen eskaria %21ean hazi den bitartean.**
- 2005eko datuekin alderatuz, aparkaleku eskaintza autoen eskariaren gainetik hazi da. Galtzadako plaza kopurua bikoiztu egin da eta aparkaleku pribatuen kopurua %11an hazi da.
- **2005eko aparkaleku balantzea -533 plaza ziren eta 2021ean +1.094 aparkalekuko superabita dago (07 eta 08 sekzioak kontuan izan gabe).**
- **Galtzadako plazen gainera presioa** nahiko jasangarria aurkezten du udalerriak, **1,6 auto plaza bakoitzeko**. Sekzioaren arabera aldatzen da, presio handiena 07 eta 08 sekzioetan (4 eta 3,4 hurrenez hurren) eta 01, 3 eta 02 sekzioetan (3; 2,1 eta 2 auto plaza bakoitzeko hurrenez hurren. Presio baxuena 04 sekzioan (0,8 auto plaza bakoitzeko).
- Errotazioak kontrolatu dira Foru Ibilbide, Jose Artetxe, Ildefonso Gurrutxaga eta Salbe auzoko aparkalekuetan, bertako aparkalekuak nola mugitzen diren ikusteko:

Desplazamenduak		Foru Ibilbidea	Jose Artetxe	Ildefonso Gurrutxaga	Salbe auzoa
Plazak		35	35	34	35
Ibilgailuak		191	122	111	66
Okupazioa		%87	%96	%96	%64
Plazen errotazio indizea	Legalak	3,82	3,49	3,26	1,75
	Dinamikoak	4,43	-	-	1,91
Aparkamenduaren iraupena	0-1 ordu	%62	%39	%36	%29
	1-2 ordu	%14	%16	%14	%14
	2-6 ordu	%22	%38	%40	%37
	> 6 ordu	%2	%8	%10	%20
Mugitzen ez diren ibilgailuak	Egun osoa	3	8	7	6



Lurraldea

Udalerria

Desplazamenduak

Oinezkoak

Bizikletak

Garraio Publikoa

Ibilgailu Pribatua



Aparkalekua

Garraioaren kanpo-eragileak





- 2017, 2018 eta 2020eko datuak jaso dira. Datu orokorrak dira: Istripu kopurua eta zaurituak.
- Epealdi horretan, 2020an igoera nabarmena istripu totalen kopuruan.
- Zaurituekin istripuetan igoera 2017 eta 2018 artean izan zen eta 2020ean mantendu.
- Zaurituen kasuan, datu kezkarriak **2020ean, 3 hildako eta zauritu larri bat.**
- Gipuzkoako eta EAEko udalerriekin alderatuta, istripu-tasa txikia du Azpeitiak, bai istripu orokorretan eta baita harrapatzeetan.



Indizea	Azpeitia	Urola-Kosta	Gipuzkoa	EAE
Istripuak / 1.000 biztanleko	4,06	6,79	8,43	7,28
Harrapatutako oinezkoak/ 10.000 biztanleko	0,66	1,18	3,43	3,72



- Azken urteetan esku hartze batzuk egin dira udalerrian abiadura handiak saihesteko (semaforoak, pasabide goratuak, etab.) baina orokorrean Azpeitiko bide-sarearen konfigurazioak ez ditu oztopo handiak aurkezten abiadurak mugatzeko.
- Egindako abiadura neurketetan, **gidarien %61ak finkatutako muga gainditzen zuen**. Infrakzio maila altuenak abiadura motelagoa duten errepide edo bideetan nabaritu da.

Puntua	Kalea	Abiadura muga (km/o)	Batez besteko abiad. (km/o)	Gehienezko abiadura (km/o)	Noranzkoa	Abiadura muga gainditzen duten ibilg.	Pertzentila 85% (abiadura km/o)	Pertzentila 15% (abiadura km/o)
1	Iturria Etxea	50 km/o	58 km/o	111 km/o	Basilika	%63,5	68 km/o	48 km/o
					Erdigunea	%71,0	67km/o	48 km/o
2	Garmendipe kalea	70 km/o	61 km/o	75 km/o	Erdigunea	%14,3	70 km/o	54 km/o
					Oñatz bidea	%9,5	66 km/o	54 km/o
3	Hartzubia hiribidea	30 km/o	39 km/o	57 km/o	Erdigunea	%88,4	44 km/o	31 km /o
					Irteera	%95,5	47 km/o	35 km/o
4	Foru Ibilbidea	30 km/o	38 km/o	68 km/o	Erreka	%91,4	42 km/o	32 km/o
					Juan XXIII	%91,4	45 km/o	33 km/o
5	Loiolako Inazio	50 km/o	65 km/o	115 km/o	Erdigunea	%88,7	73 km/o	52 km/o
					Azkoitia	%95,8	77 km/o	56 km/o
6	GI-631	70 km/o	63 km/o	105 km/o	Donostia	%14,5	70 km/o	56 km/o
					Amue kalea	%14,3	70 km/o	57 km/o



- Neurtutako abiadurak, hirigunean abiadurari buruzko araudi berrira estrapolatuz eta abiadura muga berria ezarriz, adierazten dute %96a muga berriaren gainetik zirkulatzen ari zela (kontuan hartu behar da araudia eta seinaleak oraindik ez daudenez, ez dela hipotesi erreala).

KANPO ERAGILEAK; INGURUMENA



- Ibilgailu elektrikoa kargatzeko 6 plaza. Erabilpen maila eskasa.
- **Errepideetako zirkulazioa da udalerrian zaratarik handiena sortzen duen arloa.** Jose Artetxe kalea, Arana kalea eta Hartzubia etorbidean kokatutako etxebizitzak eta Landeta poligonoaren barruko kaleak dira zarata maila altuena jasotzen duten kaleak.
- Hiri eta hiriarteko mugikortasunean kontsumitutako energia totala: 205 tpb 2021. urtean.

Garraioak eragindako BEGen emisioak: **657 t CO₂ 2021. urtean**





- Hirigunean abiadura arautzen duen araudi berriak ez du ingurua hobetuko ibilgailuen egungo zirkulazio maila mantentzen bada. Abiadura motelagoan, bide sarean dabiltzan ibilgailu kopuru berdina baldin bada, BEGen emisioak eta kontsumoa handitzen dira. Hori dela eta, **estrategiak banaketa modala aldatzearen alde egin behar du, garraiobide ez-motordunetan edo kolektiboetan joan-etorri gehiago egiteko eta ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko.**
- Abiadura araudi berrira egokitutako sare batean eta egungo ibilgailu-kilometroak mantentzekotan, hiriko eta hiriarteko mugikortasunean kontsumitutako azken energia 260 tpb izango litzateke urtean, gaur 208 tpb urtean den bitartean.
- Eszenatoki horretan, guztira 821 tona CO2 emitituko ziren Azpeitian, barne eta konexioko desplazamenduen ondorioz (egungo 657 tonen aldean).

UDALERRIAREN BILAKAERA 2005-2021



Adierazlea	Definizioa	2004 Eszena.	2012 0 Eszena.	2012 Mugik. Jasan. Eszena.	Egungo Eszenatokia (2021)
ADIERAZLE OROKORRAK					
1.1. IP barne banaketa modala	Barne desplazamenduak IP-an / Barne desplazamendu totalak (%)	65%	65%	50%	35%
1.2. IP eragindako banaketa modala	Eragindako desplazamenduak IP-an / Eragindako desplazamendu totalak (%)	68%	68%	65%	64,5%
1.3. Auto-euspena	Barne desplazamenduak lanagatik / Eragindako desplazamenduak lanagatik	69%	69%	69%	46%
ZIRKULAZIOAREN ADIERAZLEAK					
2.1. Oinarrizko sarean zirkulazioa %	Ibi-km kopurua oinarrizko sarean / Ibi.-km totala (%)	69%	69%	74%	61%
2.2. Zerbitzu mailak	E y F mailarekin sareko tarteak/ Bide sarea osoa (%)	15%	15%	0%	0%
2.3. % astunak	Ibil. astunen-km / Ibi.-km totala (%)	11%	11%	11%	9,4%
OINEZKOEN ADIERAZLEAK					
3.1. Zirkulazioaren moderazioa	Oinezko sarearen km / Sare guztiaren km. (%)	10%	10%	25%	16%
3.2. Bide espazioaren banaketa	Espaloi azalera / Bidearen azalera (%)	25%	25%	30%	32%
3.3. Galtzadako espazioaren banaketa	Oinezko pasabideen azalera / Galtzadako azalera (%)	1,9%	2%	5%	3%
GARRAIO PUBLIKOAREN ADIERAZLEAK					
4.1. GP barne banaketa modala	Barne desplazamenduak GP-an / Barne desplazamendu totalak (%)	1%	1%	2%	1,5%
4.2. GP eragindako banaketa modala	Eragindako desplazamenduak GP-an / Eragindako desplazamendu totalak (%)	31%	31%	33%	14,9%
4.3. Igarotzeko denbora	Bus geltoki bakoitzean igarotzeko batez besteko denbora	65'	65'	20'	65'
APARKALEKUAREN ADIERAZLEAK					
5.1. Aparkalekuaren estaldura	Plaza kopuru totala / Bertako auto kopurua (%)	92%	65%	90%	116%
5.2. Plaza pribatuen disponibilitatea	Plaza pribatu kopurua / Bertako auto kopurua (%)	50%	22%	31%	44%
5.3. Ilegaltasuna	Gaizki aparkatutako ibilgailu kopurua / Aparkatutako ibilgailu guztiak (%)	15%	15%	5%	4,3%



Planaren irismena

Mugikortasun Plana ez da trafikoari buruzko plan sektoriala, ezta proiektua ere. **Hiriaren eraldaketa prozesua** bermatu beharko duen tresna da. Herritarrek eta haien ordezkariak nahi dituzten erronkak lortzeko, hiri eskala berriari eta haren mugikortasun sareari lotzeko.

Mugikortasunaren joerak

Aldaketa gidatuz eta mugikortasun-joerak zuzenduz, garraio pribatuaren nagusitasuna pixkanaka murriztuz eta mugikortasun iraunkorraren kultura sustatuz.

“Hiriko eremu publikoa ez da elastikoa eta ondasun urria da”



Mugikortasun Planaren asmoak



Oinezko mugikortasuna eta garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera lehenestea, ibilgailu pribatuari protagonismoa kenduz, eta aparkalekua eta salgaiak kudeatuz.



Mugikortasun segurua

- Mugikortasunari lotutako istriputasuna murriztu.

Mugikortasun jasangarria

- Jasangarriagoak diren desplazamendu moduak areagotzeko bidea erraztea.
- Garraioak eragindako kutsadura atmosferikoa murriztea.
- Garraioak eragindako kutsadura akustikoa murriztea.
- Garraioan energia-kontsumoa murriztea eta klima-aldaketari egiten dioten ekarpena murriztea.
- Energia berriztagarrien eta “garbien” kontsumoaren proportzioa handitzea.

Bidezko mugikortasuna

- Eremu publikoaren bidezko erabilera sustatzea.
- Pertsona guztien mugitzeko eskubidea bermatzea.

Mugikortasun eraginkorra

- Garraio-sistemen eraginkortasuna areagotzea.
- Garraio-sistemaren kostu ekonomikoak/pilaketa-kostuak murriztea.
- Teknologia berriak mugikortasunaren kudeaketan sartzea.



Mugikortasun jasangarrirako estrategiak Azpeitin

☐ **Irisgarritasuna hiri-espazioaren kalitatea hobetu**


- Erdiguneko plana

☐ **Modu jasangarriagoak sustatu**

- Bizikletaren erabilpena eta desplazamenduak oinez areagotu.
- Oinez eta bizikletaz egiteko ibilbideen konektibitatea osatu.
- Lurralde osoari estaldura emango dion autobus sarea.
- Lanegatik egindako desplazamenduetarako garraio publikoa sustatu.

☐ **Ibilgailu motordunen zirkulazioa baketzea eta antolatzea**




- Zirkulazio Plana (hierarkizazioa, noranzko bakarra).
- Aparkalekua kudeatzeko plana (galtzadatik kanpoko erabilera optimizatzea, errotazioa handitzea eta diziplina eza murriztea).
- Hobekuntzak bide-segurtasunean.






HMJParen modalitate-banaketaren
helburuak 2021-2026

- Ez motordunak
- Ibilgailu pribatua
- Garraio publikoa



Nahi den mugikortasun eredua
Helburua 2026



Mugikortasuna orokorra (barnekoak + konexioa), bertakoak, eragindakoak eta erakarritakoak.



EKINTZA PLANA

- **Definitu** helburu espezifikoak eta proposatutako programa zehatzak hedatzeko ildo estrategikoak eta ildoak.
- Mugikortasunaren arloan erabakiak hartzeko hausnarketa eta partaidetza prozesu soziala **koordinatu**.
- Mugikortasun iraunkor, seguru, bidezko, eraginkor eta gizatiarraren kultura **sustatu**.





HMJP EKINTZA PLANA

Udalerri trinkoa lortzeko erronkak.

Udalerri osasuntsuago, berdintasunezkoago, iraunkor eta berdeago baterantz beste horizonte bat definituz.

Mugikortasun Planak 6 ardatz sektorial ezartzen ditu:

- 1. Hiriko espazio publikoaren irisgarritasuna eta kalitatea hobetzea**
- 2. Bizikleta-sarea zabaltzea eta hobetzea**
- 3. Garraio publikoan hobekuntzak kudeatzea**
- 4. Ibilgailu pribatuko mugikortasunaren plangintza estrategikoa**
- 5. Aparkalekuaren erregulazioa, antolamendua eta seinaleztapena**
- 6. Udalerri segurua eta emisio gutxikoa**

1.- Hiriko espazio publikoaren irisgarritasuna eta kalitatea hobetzea



- Iragazkortasun-arazoak konpontzea.
- Espaloien zabalera erabilgarria hobetzea.
- Hiriguneko egonlekuak handitzea.
- Urrestillako oinezkoentzako gunea hobetzea.
- Ibilbide nagusiak ibilbide eta denborekin definitu eta seinaleztatzea.
- Irisgarritasuna eta oinezkoen pasabide kopurua handitzea.
- Arazoak sortzen diren tokietan bizikletak, oinezkoak eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak elkarrekin bizitzeko ordenantza.
- Eskola bidea hobetzea.
- Mugikortasun iraunkorraren kultura sustatzea.





- Bizikletaren oinarrizko sarea garatu eta lotzea.
- Bizikleta espaloitik pixkanaka kentzea.
- Bizikleta sustatzeko plana.
- Aparkatzeko espazioak handitzea.
- Aparkaleku estaliak eta seguruak.
- Bizikleta galtzadan sartzea 20. eta 30. eremuetan.
- Udalerrien arteko loturetan argiztapena hobetzea.





- **Geralekuen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea.**
- **Geralekuen kalitatea eta erabiltzailearentzako informazioa hobetzea.**
- **Sarearen ibilbidea optimizatzea estaldura handituz.**
- **Garraiobide anitzeko joan-etorriak bultzatzea (autobusa + bizikleta).**
- **Garraiobide eraginkorragoetara aldaketa erraztea.**
- **Hiriko autobus zerbitzua ezartzeko aukera aztertzea.**
- **Joan-etorriak partekatzeko zerbitzuen erabilera sustatzeko modu berriak.**





- Erdiguneko plana.
- Eskola-inguruetan zirkulazioa baketzea eta baretzea.
- Hiri-bilbea eremu baketsuetan antolatzea (oinezkoak, 20, 30).
- Bide sarearen hierarkizazio berria.
- Noranzko bakarreko kale kopurua handitzea.
- Alde Zaharrera sartzeko erregulazioa eta kontrola.
- Bide segurtasuneko kanpainak mantendu / sustatzea.



5.- Aparkalekuaren erregulazioa, antolamendua eta seinaleztapena



- Hiriko aparkaleku osoa erregulatu eta seinaleztatzea.
- Erregulazio eremuak handitzea.
- TAO makinaren egungo funtzionamendua zuzentzea.
- Egoiliarrentzako aparkaleku-erregulazioa ezartzea.
- Galtzadatik kanpo aparkatzeko estrategiak sustatzea (bizilagunak).
- Eremu arautuetan okupazioa eta errotazioa areagotzeko estrategiak sustatzea.
- Zamalanetako kontrola eta erregulazioa.





- Teknologia berriak sartzea mugikortasunaren kudeaketan (smart city)
- Ibilgailuetan energia alternatiboak bultzatzea, udal flotatik hasita.
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko lekuak areagotzea.
- Turismoa eta mugikortasuna: aldaketa modala sustatzea.



Trafikoaren kontrola



Intentsitate detektagailuak



Lehentasun semaforikoa



Informazio panelak

Diziplina eta segurtasuna

